

# DIRU-ITURRIAK

Proiektuarekin hasteko, gure ideia ekologia arloan sartuta dauden hainbat taldeei aurkeztuko diegu; era horretan, hasierako inbertsioan laguntza desberdinak lortuko ditugu. Gainera, taldekide bakoitzak hasiera batean kapital propioetik jarriko dugu dirua 25.000 € izango ditugu kapital finkotzat - 5000 € Mariak, 5000€ Irati Suancesek, 5000€ Irati Dominguezek, 5000 € Jon Anderrek eta 5000€ Nagorek jarriko ditu.

Hasieran, mailegu bat eskatuko dugu enpresari lehenengo bultzada emateko. Ondoren, bezero gehiago ditugunean, publizitatea jartzeko gai izango gara, eta era horretan, gero eta diru gehiago lortuko dugu aktiboen salmentatik.

Gure aktiboen salmentak janariak, edariak edota gure baratzeko produktuak saltzea izango da. Menuak sukaldatu eta salduko ditugu. 20 euro aldera kostatuko du plater bakoitzak, baina janari solteak ere salduko dira prezio baxuagoan. Horrela, diru sarrera baxuak dituzten pertsonak ere gure jatetxean jateko gai izango dira. Gainera, 10 euroko bazkide txartela eskuratzeko aukera egongo da, deskontuak etab. izateko. Horretaz aparte, tailerrak egingo dira bai txiki zein helduentzat ortuan nola landatu behar den ikasteko. 5€ kostatuko dute txikientzako tailerra eta 8€ helduentzako.

Saiatuko gara prezio finkoak edukitzen, baina negozioa oso ondo joaten bada, prezioak igotzeko aukera izango dugu.

Espero dugunez, astelehenetik ostegunera 15 bat pertsona etorriko dira gure jatetxera lehenengo urtean, 300 euro sortuko dutenak. Asteburuetan, berriz, 40 pertsona aldera etorriko dira egunero, bazkalordua eta afaria kontuan hartzen badugu, baina plater solteak ere salduko dira; beraz, 700 euro inguru irabaziko dugu asteburu bakoitzeko egun batean. Hori dela eta, lehenengo urteko etekinak, 200.000 euro izango dira. Baina horri, langileen soldatak, fakturak, etab. kendu beharko zaizkio.

